Desde los Ayuntamientos de Orbaizeta y Orbara se quiere hacer llegar y apoyar la propuesta de la Mesa del Pirineo que se traslada / Orbaizeta eta Orbarako Udaletatik Pirineoko Mahaiak prestatutako proposamena helarazi eta babestu nahi dugu:

“Las personas que componemos la Mesa del Pirineo, somos cargos electos pertenecientes a EELL de este territorio, compuesto por 30 ayuntamientos junto al ayuntamiento de Oroz- Betelu y Arce.

Hace tres años se elaboró el PLAN DEL PIRINEO recogiendo las necesidades del territorio en diferentes ámbitos de la vida y propuestas de actuaciones para corregir esas deficiencias y necesidades. En este tiempo se ha avanzado gracias al apoyo con recursos económicos y humanos dispuestos para tal fin.

Sin embargo, estamos firmemente convencidos y convencidas de la necesidad de una ley marco que contemple y atienda la despoblación, capaz de aportar en el diseño de políticas públicas apropiadas para revertir estas realidades de varias zonas rurales de Navarra.

Es por esto por lo que consideramos importante puntualizar y aportar desde nuestra experiencia en este proceso de elaboración de la Estrategia Territorial Navarra:

Todas las políticas diseñadas en esta Estrategia Territorial Navarra tendrán como objetivo primordial la cohesión y el equilibrio territorial.

La participación activa de la ciudadanía, la activación, consolidación y potenciación de la economía rural será tratada desde prismas de desarrollo ecosostenibles e innovadores. Para ello, deberá ser acompañado en el más breve espacio temporal, con el desarrollo y puesta en marcha de una Ley de Despoblación contrastada y trabajada con las zonas rurales identificada con esta problemática.

Pirinioko Mahaia osatzen dugunok lurralde honetako toki entitateetako hautetsiak gara. Guztira 30 udalerri dira, Orotz-Betelu eta Artzibar barne.

Duela hiru urte, PIRINIOETAKO PLANA egin zen, eta, bertan, lurraldeak bizitzako hainbat arlotan dituen beharrak eta gabeziak eta behar horiek zuzentzeko jarduera-proposamenak jaso ziren. Hortik hona bide horretan aurrera egin da, jarritako baliabide ekonomiko eta giza baliabideei esker.

Hala ere, erabat konbentzituta gaude despopulazioa aintzat hartzen duen lege marko baten beharra dugula, hura behar bezala artatzeko, Nafarroako hainbat landa-

eremutako errealitate horiek iraultzeko politika publiko egokien diseinuan ekarpenak egiteko gai izanen dena.

Horregatik uste dugu garrantzitsua dela Nafarroako Lurralde Estrategia egiteko prozesu honetan gure esperientzian oinarritutako zehaztapenak eta ekarpenak egitea:

Nafarroako Lurralde Estrategia honetan diseinatutako politika guztien helburu nagusia lurralde kohesioa eta oreka izanen dira.

Herritarren parte-hartze aktiboa, landa-ekonomia aktibatzea, sendotzea eta indartzea garapen-ikuspegi ekojasangarri eta berritzaileetatik landuko da. Horretarako, denbora-tarte laburrenean, Despopulazioari buruzko Lege bat garatu eta martxan jarri beharko da, arazo horrekin identifikatutako landa-eremuekin kontrastatuta eta landuta.”